

**NIRE MARRAZKIA**

Intz-orri bi zeunkazan begian dizdizka,  
ta ondora naiatzun orren zio itaunka.

Itzala da gogoa, ezkutuz jantzia;  
izar-izpi artean or doa bizia.

Gaur, baiña, neure zerbait —marrazki zurian—  
josi dautzut ikatzez zeure gogo ingian.

—Zelan diñozu?— Ona: geldi-geldi, otzik,  
begitu gozo batez dautzut marra leunik.

Zuk ez dozu somatu nik zuri egiña,  
nik bai ikus aragian min esan-eziña.

Antsi bat bota dozu miña cartzean,  
zeure gogo ixillaren csin-labe mean.

Or baitan daroazu geroztik josia  
nik barnean eindako aztarna ezta.

Zeure izatean dozu —ur ertz zinbelean—  
neure izate zatia, dardar etengean.

**BEGIAN MALKOA**

Begian malkoa  
yabiltzu bero  
goi-amesez,  
untzorri gaiñeko  
dardar artean  
txoria lez.

Ez otz ta ez legun,  
oianeko itzala  
gaiñez dozu,  
ta ¡rabilio osteko  
arnasa dala  
diraustazu.

Muiñoan ertzez ertz  
oin-arin ta zal  
kaiña dea;  
maitezko zerbaitek  
bizkar gaiñean  
bai daroa.

Oraintsu, kantari,  
ona yat eldu  
goiz aizea,  
ta urruti daukien  
jaiaren barri  
damost mea.

Ganduaren lepo  
alai ta eder  
dantza zara,  
ta uler eziña yat  
zure poz bete,  
par-algara.